

ARBAIZENEA TXALETA
C MAILA

SAN ROKE 37



Egilea eta data: ezezagunak.

Deskribapena

Aiete auzoan kokatua, Arbaizenea txaleta da XIX. mendearen amaieran garai hartako familia aristokratikoen hirian eraikitako udako bizilekuen azken adibideetako bat. Gaur egungo eraikina duela 150 urte inguru egin zutela kalkulatu da aurretik zegoen baserri baten oinarrien gainean (era berean, baserri honi loturik egongo ziren ingurune horretan kokaturiko Arbaizeneako garbitegia eta Txanponeneko iturria). Eraikinak eta inguruko lorategi zabalak osaturiko multzoak Ingalaterrako landazabaleko "cottage" bat gogoratzen du.

Babes erregimena

- 1.- Babes erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako eta estalkiko elementuak: ez; estalkia ere babesten da.
 - B. Eraikuntzako elementu iraunkorrak: ez.
 - C. Handitzeko edo aldatzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.